

# BIGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## ENTZUMEN-PROBA

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NAN-zk. _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____

Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p><b>ENTZUMEN-PROBA</b></p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</p> <p>Hiru entzungai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</p> <p>Entzungaien iraupena guztira: 12 min. gehienez.</p>	35-40 min.	20	10

- Ariketa bakoitzean datozen argibideak irakurri eta bertan jartzen duena egin.
- **Ariketak** horretarako eman zaizun **aparteko orrian** egin.

## 2. HE

## ENTZUMENA

### ■ 1. ariketa

Isabel Otxoak etxeko langileek izango duten egoeraz hitz egingo digu, legeak aldaketa dakar.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean erantzuten hasi.

- 1. Zein da lege-aldaketak etxeko langileei ekarriko dien lorpenik nabarmenena?**
  - a) Lorpenik nabarmenena paperaren gainean garatu izana da.
  - b) Paga bat gehiago jasotzeko aukera.
  - c) Gutxienerako soldata osoa lortzeko eskubidea.
- 2. Zein da lehenengo egoeraren eta gaur egunekoaren arteko alderik nabarmenena?**
  - a) Orain, ordu guztiak ordaindu behar dira.
  - b) Orain egote-orduak ez dira ordaindu behar.
  - c) Lehen egote-orduak ordaintzen ziren, orain ez dira ordaindu behar.
- 3. Zer dio Isabel Otxoak ordainketa-moduez?**
  - a) Lehenengo moduan izango direla., alderdi guztietatik
  - b) Hilean hilekoa ordaindu behar dela eta aparteko bi ordainsari
  - c) Urteko kopuru minimoak errespetatuta, banaketa nahi den moduan egin daitekeela.
- 4. Zer dio Otxoak gutxienerako soldataz eta mantenuaz?**
  - a) Gutxienerako soldatari mantenuaren kostua gehitu behar diogula..
  - b) Gutxienerako soldata baino gutxiago ezin dela ordaindu mantenua aitzakia hartuta.
  - c) Mantenuaren kostua gutxienerako soldatari kendu behar diogula.
- 5. Zenbat ordu egiten dituzte batez beste etxeko langileek?**
  - a) 64 ordu.
  - b) 74 ordu.
  - c) 54 ordu.
- 6. Zer alde dago Frantziako eta Espainiako legediaren artean?**
  - a) Frantziakoan lo egiteko tokiagatik Espainian baino 71 € gehiago kentzen zaizkio langileari.
  - b) Espainian soldataren %30 kendu ahal zaio etxeko langileari, Frantzian baino askoz gehiago.
  - c) Ez dago alde nabarmenik baten eta bestearen artean.
- 7. Zer ezaugarri ditu Frantziako legediak?**
  - a) Lotan gelditu behar duen langileari 71 € kentzen zaizkio hilabeteko.
  - b) Ezinbestean lotan gelditu behar duen langileari ezin zaio soldatetik ezer kendu.
  - c) Ezinbestean lotan gelditu behar duen langileari 71 € kendu ahal zaizkio gehienez..
- 8. Frantzian langileari lanlekuan lo egiteagatik kobratu egiten zaio?**
  - a) Kontratuan jasotakoaren arabera.
  - b) Bai, beti kobratzen zaio.
  - c) Ez, ez zaio inoiz kobratzen.

**GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN**

**2. HE**

**ENTZUMENA**

■ **2. ariketa:**      **Lotu hitza dagokion testu zatiarekin.**

Mexikon txoriei buruz egin duten ikerketa baten berri entzungo duzu jarraian.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. daukazu esaldiak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Hasi erantzuten nahi duzunean.

**Lotu hitz bakoitza dagokion testu-zatiarekin. Adib.:**

0. Txonta	K
-----------	---

1. Cholula	A. Ikerketan parte hartu du, Mexikoko Universidad de las Américas Unibertsitatearekin batera.
2. Neiker-Tecnalia	B. Tamaina txikiko hegazti-espeziea.
3. Poluzio akustikoa	C. Bertan ikertzaileek 38 hegazti-espezieren agerraldi-maiztasuna neurtu zuten.
4. Ekuazioa	D. Hemen ez bezala, Mexikoko hirietan aurkitu ahal den hegazti-espeziea.
5. Birigarro	E. Gune metropolitarra, non egindako lanen arabera, gune berde zaratatsuenetan hegazti-espezien aberastasuna txikiagoa baita.
6. Txolarre	F. Zarata handia berdin espezie gutxiago.
7. Parkeak, plazak, hilerriak...	G. Modu negatiboan eragiten dio txoriek hirietan duten presentziari.
8. Paseriforme	H. Zaratara ondo egokitzen den hegazti lotsagabea.

**Idatzi dagokion hizkia ondoko laukietan:**

<b>Hitzak</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>
<b>Testu zatiak</b>								

**GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN**

■ **3. ariketa**

Consumer aldizkariak egindako ikerketa interneten aurkitu ahal diren dietei buruzkoa.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean has zaitezke erantzuten.

- 1. Zergatik esaten du esatariak Interneteko eskaintzeekin tentuz ibili behar dela?**
  - a) Egia bihurtzen ez diren bidaiak kontratatzeko arriskua dagoelako.
  - b) Erosketak egiteko aukera eskaintzen digulako.
  - c) Argaltzeko dietak eskaintzen dizkigulako.
- 2. Zer ondorioztatu dute Consumer Eroski aldizkarikoek egin berri duten ikerketa batean?**
  - a) Interneten egindako erosketak ez direla fidagarriak.
  - b) Internetetik eskaintzen zaizkigun dietekin oso argi jokatu behar dugula.
  - c) Internetekin, oro har, oso tentuz jokatu behar dugula.
- 3. Zer ezaugarri izan ditu Consumer Eroski aldizkarikoek egindako lanak?**
  - a) Perfil desberdinetako pertsonentzako dietak eskatu dituztela eta aldizkariko adituekin kontrastatu dituztela ondoren.
  - b) Berariaz, ezaugarri bereko pertsonentzako dietak eskatu dituztela.
  - c) Pertsona desberdinek ezaugarri bereko pertsonentzako dietak eskatu dituztela.
- 4. Zer irizpide izan dituzte dietak baloratzeko?**
  - a) Osasuna eta gomendioen ezaugarriak.
  - b) Etxeko dietisten iritzia baino ez.
  - c) Emaizten ikuspuntua, benetan argaltzeko balio izan duten.
- 5. Zein izan da aldizkarikoek dietei antzeman dieten iruzurrik nabarmenena?**
  - a) Asmatutakoak izan direla.
  - b) Eskatutako pertsonentzako sortutako dietak ez direla izan.
  - c) Dietistek eskatutakoak zehatz-mehatz jarraitu dituztela.
- 6. Zer da normopisua?**
  - a) Pertsonaren ezaugarri fisikoak aintzat ez hartzea.
  - b) Pertsonak alegiaren bat duen aztertuta, neurrira egindako dieta.
  - c) Gorputz-ezaugarriak, sexua eta adina aintzat hartuta, pertsonari dagokion pisua.
- 7. Zergatik ez dute gainditu Consumer aldizkarikoen azterketa?**
  - a) Dietak pertsonalizatuegiak direlako.
  - b) Gabezia handiak dituztelako.
  - c) Galdetegirik ez dutelako egiten.
- 8. Zeri eman behar zaio lehentasuna dietetan?**
  - a) Pertsonaren gustuei.
  - b) Osasunari.
  - c) Pertsonaren gustuei eta osasunari.
- 9. Beste zer jotzen dute negatibotzat?**
  - a) Zientziak frogatu gabeko hainbat osagarri eskaintzea.
  - b) Dieta zenbat denboran egin behar den garbi adieraztea.
  - c) Zenbat kilo galdu behar diren adieraztea.

**GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN**

## 2. HE / ENTZUMENA

### ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Entzugaia: Etxeko langileak

1.	C	5.	A
2.	A	6.	B
3.	C	7.	B
4.	B	8.	A

- 2. ariketa: hitza kokatu
- Entzugaia: Txulula

Hitzak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu-zatiak	E	A	G	F	D	H	C	B

- 3. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Entzugaia: Internet bidez argaltzea

1.	C	4.	A	7.	C
2.	B	5.	B	8.	B
3.	A	6.	C	9.	A